


**BALDAZAR BASERRIA**  
C MAILA

**IGARA BIDEA 195**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

Baserria XVI. mendekoa da jatorriz. Egungo eraikinak jatorrizko baserriaren berreraikuntza bati erantzuten dio (zehaztu gabeko datan egina), eta, gaur egun, Igarako kanpinari dagozkion urbanizazioaren eta eraikuntzen multzoan sartuta dago, euste hornen bidez bermatutako plataforma batean. Alboetako batean zenbait gorputz erantsi ditu.

Eraikin nagusiak profil hau du: beheko solairua, lehen solairua eta bi isurkiko estalkipeko solairua. Harlangaitz hormez eraikita dago, eta barne egitura eta estalki egitura zurezkoak ditu. Fatxada nagusian bistan geratzen da beheko solairuko harlangaitz horma, eta horren gainean zurezko bilbadura bat altxatzen da. Agerian dira ere hareharri landuzko izkinak.

Puntu erdiko arkuko bao txiki bat du fatxada nagusiaren beheko solairuan, eta arku konopialeko beste irekidura bat atzeko fatxadaren lehen solairuan. Bertan, era berean, hareharri landuz gauzatutako gurutze bat ageri da.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra  
Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: eraikin nagusiaren handitze lanak eta gorputz erantsiak.
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxada nagusiaren harlanduzko elementuak eta bilbadura.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: handitze edo jasodura gehiagorik ez da onartzen.
  - D. Nahitaezko lehengoratzak: ez.